



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Sukarrieta, 2023ko martxoaren 30a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela. **AZTIko pertsonentzako ingeleseko prestakuntza-plana azpikontratatzeko**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Kontratuak **36 hilabete (3 urte) iraungo** du, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Indarraldia iritsitakoan, kontratua automatikoki luzatuko da, salbu eta aldeetako edozeinek beste alderdiei hasierako epea edo luzapenetako edozein amaitu baino hilabete lehenago idatziz hala adierazten badio. Kontratua, luzapenak barne, ez da bost (5) urtetik gorakoa izango.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa da **hamabi mila euro (12.000,00€), kontratuaren iraupen-urte bakoitzeko**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da faktura.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Hobekuntzak	%40
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%10





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Tania Gonzalezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak tgonzalez@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023ko apirilaren 17ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: Javier García Mateo

Tel. 34 665 705 059

Mail: jgarcia@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.

- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkartzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

- Hizkuntzei buruzko prestakuntza eskaintzea, batez ere ingelesari buruzkoa, zerbitzu digitalen, birtualen eta presentzialen bidez. AZTIko pertsonak ikasteko taldeetan ikaskuntza digitala eta prestakuntza birtuala bultzatzeko helburuarekin.
- Ikaskuntza pertsona taldeei eskainiko zaie, ingelesaren eta beren lan-ingurunean hizkuntza erabiltzeko beharren arabera egituratuta.
- Taldearen eta AZTIren beharretara bereziki egokitutako online ikaskuntzako metodologiak eskaintzea.
- Ikaskuntza- eta aurrerapen-maila desberdinak eskaintzea.
- Curriculum egituratua estandar ofizialekin eskaintzea, eta talde bakoitzaren mailan pertsonalizatzea.
- Eskolarekin, ikaskuntzarekin eta hizkuntzaren ezagutzaren garapenarekin lotutako tresna gehigarriak eta jarduerak eskaintzea (fitxak, ariketak, etab.).
- Malgutasuna taldeen online eskolak egiteko ordutegi-aldaketei eta taldeei dagokienez. Ikastaroan zehar pertsona espezifikoei banakako eskolak eman ahal izatea, haien beharren arabera.
- Konexio-sistema fidagarri, dinamiko eskaintzea eta bermatzea, eskolak eta dagokion prestakuntza-aldia egin ahal izateko.
- Egutegia sinkronizatzeko sistemak, ikasleak malgutasunez konektatu ahal izateko.
- Taldearen ikaskuntzari eusten dioten jarduera eta ariketa paraleloak egitea.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Norbanakoaren eta taldeen aurrerapenaren aldizkako jarraipenak. Prestatzailearen aurrerapen- eta asistentzia-txostenak.
- Prestakuntza erakundeko 30 pertsona ingururi emango zaie kontratuaren iraupen-urte bakoitzeko. Hizkuntza- eta ingeles-irakaskuntzaren maila pertsona horiek dituzten hizkuntza-eskakizunen behar teknikoetara bideratuta dago.
- Kasu honetan, kualifikazio zientifiko handiko ikertzaileak dira. Ikastaroaren garapena ezagutza-premia tekniko horietara egokitu beharko da.
- Pertsona bakoitzak 32 prestakuntza-saio izango ditu. Astero saio bat. Programa hasten denetik amaitzen den arte.
- Saio birtualak 2 orduko prestakuntza izango du:
 - online prestatzeko 60 minutu.
 - 25/30 edo 55/60 minutuko telefono-saioa (telefono finko/mugikor bidez edo Skype bidez)
 - online finkatzeko 30 minutu.
- Ikasleek saio bat izan beharko dute eskura astero, irakaslearekin harremanetan jartzeko aukera izan beharko dute, bai eta ikastaroaren prestakuntzarako, egiturarako eta aurrerapenerako gaitutako plataforma edo sarbideetarako sarbidea ere. Baita komunikazio-sistema arin bat ere.
- Prestakuntzaren hasieran maila-probak egiteko aukera eskaini beharko du, bai eta programaren bertaratzea eta aprobetxamendua kontrolatzeko zehazten den plataformara sartzeko aukera ere